



IPARRAGIRRE ABILA DELA

Egun, errima aldatzen da tarteko bi puntu motzetan.
Jatorrizko bertsoetan, errima aldatzen zen azken bi puntuetan.

Doinuaren sortzailea: ikertzaile batzuen ustez, Joxe Mari Iparragirre (1820 Urretxu – 1881 Itxaso, Gipuzkoa).
Bertso honen egilea: Juan Frantzisko Petriarena “Xenpelar” (1835 – 1869 Erreterria, Gipuzkoa).

Bertsoaren berri

“Xenpelar Bertsolaria” liburuan (Auspoo, 1969) jasota dagoenez, bertso honen gertaera halaxe izan omen zen: Xenpelar eta Iparragirre Donostiako sagardotegi batean egokitu ziren, eta Iparragirrek esan:

-Etorri nahi al duk nirekin? Nik soinua jo eta hik bertsoak kanta, ederki biziko gaituk!

Xenpelarrek ezetz. Eta Iparragirrek segi:

-Hik beti doinu zaharrean kantatzen dituk bertsoak; ez izan gauza nire doinu berriaz bertsoak egiteko...
hargatik ez duk nirekin etorri nahi!

Eta Xenpelarren erantzuna hauxe izan zen: doinu berriaz (uste denez, Iparragirrek sortua zuen doinu berriaz) bi bertso botatzea. Hauxe da lehen bertsoa.

Iparragirre abila dela
askori diot **aditzen**,
eskola ona eta musika
hori hoiekin **serbitzen**.
Ni ez nazu **ibiltzen**
kantuz dirua **biltzen**
komeriante **moduan**;
debalde festa preparatzen det
gogua dedan **orduan**.

